

2025 - 2026 ikasturtea

# Hernani



eskolako  
agenda  
2030

11 HIRI ETA KOMUNITATE  
IRAUNKORRAK



Aurtengo Hernaniko Eskolako Agenda 2030ean bi ziklotako programari amaiera eman diogu. laz aukeratutako Garapen Jasangarrirako Helburua 11. izan zen: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK. Helburu zabala izanik, atal batean oinarritu gara: **MUGIKORTASUN JASANGARRIA.**

2024-2025 ikasturtean gaiaren inguruko diagnostikoa egin genuen eta horrekin batera, ondorio batzuetara iritsi ginen, lehentasun batzuk markatuz. 2025-2026an berriz, lehentasun horietatik abiatuta esku-hartze plana diseinatu eta gauzatuko dugu.

Aurtengoarekin, EA2030 programak 22 urte bete ditu eta urte horietan, Hernani ezagutzeko gai ugari jorratu izan dira.

## BI ESKU-HARTZE PLAN

### ESKU-HARTZEA - LH

#### NOLA MUGITZEN GARA HERRIAN?

"Sketch" txikiak egin ditugu modu jasangarriagoan mugitu gaitezen.

*Ikastetxeak: Aratz, Elizatxo, Langile eta Urumea ikastolak eta Txirrita herri eskola.*

### ESKU-HARTZEA - DBH

#### KANPAINA INFORMATIBOA BURUTUKO DUGU HERRIAN ETA... BIZIKLETAZ ZERGATIK EZ?

*Ikastetxeak: Aratz ikastola eta Hernani BHI.*



## LANEN ANTOLAKETA ETA ESKOLEN ARTEKO FOROAK

Esku-hartzearen inguruan eta ikastetxeetan jasotako ideiak elkartzeko, udazkenean eko-ordezkariek ikasturteko **eskola arteko lehenengo foroan** bildu ginen, alde batetik lehen hezkuntzako ikasleak eta bestetik bigarren hezkuntzakoak. Hortik aurrera eman beharreko urratsak adostu genituen.

### LH-ko 1. FOROA



### DBH-ko 1. FOROA



Gai bakoitzaren inguruan eskematxo bat prestatu eta adostu genuen zer egin nahi genuen, nola egin eta zein behar genituen udalaren aldetik.

Horrela, abenduan, **lehenengo Udal Eskola Foroa** egin genuen eta aurtengo Esku-hartzearen asmoen berri eman genien udal ordezkariari. Gurekin, alkatea, hezkuntza zinegotzia eta udaleko hainbat teknikari egon ziren.

## 1. UDAL ESKOLA FOROA



Ikasturteko bigarren hiruhilekoan esku-hartzeak aurrera eramaten jardun ginen eta Aste Santu ondoren bakoitzaren proposamenak elkartzea izan da etapa bakoitzeko zeregina, **eskolen arteko bigarren foroetan**. Bertan adostu dugu egindako lana nola zabaldu herrian. Hori da hain zuzen ere kontaktuko duguna hurrengo lerroetan.

**Argazki honetan, LH eta DBHko ordezkariak batera daude.**



LH-ko 2. FOROA



DBH-ko 2. FOROA



## BI ETAPEN ARTEKO BATERATZEA

Etapa bakoitzak besteari ikasturtean zehar prestatutako esku-hartzearen berri eman zion, ondoren udal ordezkariari egingo diegun bezala.



## ESKU-HARTZEEN AZALPENA

**LH - NOLA MUGITZEN GARA HERRIAN?** LHko ikasleak "Sketch" txikiak egin dituzte denok modu jasangarriagoan mugitu gaitezen. Gai zerrenda bat egin zuten eta denen artean adostu eta bakoitza gai baten inguruan aritu da.



### Aratz ikastolako ikasleak

Garraio publikoaren inguruan aritu dira



### Elizatxo ikastolako ikasleak

Kotxea partekatzeren garrantziaz aritu dira.



KAR-PU-LI-NA



### Langile ikastolako ikasleak

Ikastolara lagunekin eta oinez joan nahi dute.





### Txirrita herri eskolako ikasleak

Bizikleta aldarrikatu dute mugitzeko aukera bezala.



### Urumea ikastolako ikasleak

Petrolioarekiko dugun menpekotasunaz ohartu dira.




**DBH - BIZIKLETAREN ERABILERA ETA BIDEGORRI SAREAREN AZTERKETA IZAN DITUZTE GAI NAGUSIAK.** Kasu honetan ere bi ikastetxeak mugikortasun jasagarria zer den eta honen garrantzia izan dituzte abiapuntu. Ondoren, gaiak banatu dituzte eta hemen lanketa aipagarrienak:

### Aratz ikastolako ikasleak

Herriko trafikoa aztertu dute eta poligonoetara egunero doana. Honekin batera eta iaz egindako bidegorrien inguruko diagnostikoari jarraituz, bizikletaren erabilera indartu nahi dute herrian eta inguruko herriein egon beharko luketen loturak. Guztia plano batean irudikatu dute.

### Hernani BHlko ikasleak

Herrian hainbat momentutan sortzen diren auto pilaketak ekiditeko, autoa partekatzearen garrantziaz aritu dira, baita garraio publikoaren erabileraz. Bide batez, udalaren asmoak mugikortasunarekiko aztertu dituzte eta esku-orri batean bildu.



Eta bi kasutan, jabetuta bizikletan ibiltzeak oinarrizko ezagutza batzuk behar dituela, aditu batek gidatutako **"bizikleta konponketa tailerra"** jaso dute bakoitzak bere ikastetxean.



Aurtengo EA2030 programa amaitzeko, egindako lanketa eta ikasitako guztia herritarrekin partekatzeak duen garrantziak jabetuz, herriko azoka antolaketarekin batera, **maiatzaren 28an, osteguna, Urbieta kalean egongo gara. Bertatik pasatzera animatzen zaituztegu!!!**



## UDAL ESKOLA FOROA

Maiatzaren 20an ospatuko da **bigarren udal eskola foroa** eta udal ordezkariak gure lanen berri emango diegu. Ondoren esku-hartzea kaleratuko dugu eta herritarrak informatuko ditugu egindako ekintzetaz.

**DENOK BATERA HERRI  
JASANGARRIAGO  
BATEN ALDE!**



